


Kirolzale enpresa:

**“Kirola gure bizimodua
bihurtu nahi dugu”**

Josu Mauas eta Jon Hernandez, 18 eta 19 urteko ermurrak dira. Hain gazteak izan arren, duela hilabete batzuk euren enpresa Marthan ipini dute, Kirolzale Kirol Zerbitzuak. Urratsbat proiektuaren babesean, lehenengo pausuak eman dituzte, baina orain euren lekua bilatu behar dute oso merkatu lehiakorrean. “Mundu hau ezagutzen dugu, ez gara honetan sartu ez jakintasunean”, diote.



Jon Hernandezek kirol enpresa sortzeko ideia zuen buruan aspaldidanik. Duela urtebete, ekintzaileei zuzendutako ekitaldi batean parte hartu zuen, Eibarko Unibertsitatean eta bukatu-takoan, antolatzailei bere ideia azaldu zien. Eusko Jaurlaritzako Lanbide-Hastapeneko sailburuorde-tzak garatzen duen Urratsbat proiektuaren laguntzarekin, enpresa berria sortzeko lehenengo pausuak ematen hasi zen: merkatua aztertzen, bideta-

sun plana egiten... Duela lau edo bost hilabete, Josu Navas ere proiektuan sartu zen eta gaur egun enpresa sortzea lortu dute.

- Zein da Kirolzaleren zeregin nagusia?

Edozein kirol ekimen edo instalazioaren kudeaketa osoa egin dezakegu, eta Euskal Herri osoan ez dago lan hau egiten duen enpresarik. Gehienek, kudeaketa puntuala eskeintzen dute.

- Beraz, zuen lan eremua oso zabala da?

Bai, baina hasiera baten

Deba Behean bilatuko dugu lana, aurrerago... batek daki.

- Dirulaguntzak jaso dituzue?

Bai, Urratsbat proiektua kudeatzen duen Tknika erakundeak, aurreproiektuei ere dirulaguntzak ematen dizkie. Guri, 7.000 euroko laguntza eman zigun eta diru horrekin gure aurkezpen karpetak, txartelak... prestatu eta inprimatu genituen. Gainera, merkatua tanteeatzeko prestatu genuen patinaje ikastaroan, material gehiena, instalazioen aloikairua eta abar, dirulaguntza horrekin ordaindu genuen.

- Web orria badaukazue?

Bai, Tknikaren dirulaguntza horrekin ordaindu genuen baita ere eta diseinua Debatatikak egin zigun,

Urratsbat proiektutik sortu-tako beste enpresa baita ere. Programa hau, beraz, beste enpresa batzuekin kontaktuan ipintzeko aukera ematen du, eta sortu berri diren enpresen artean laguntzen ahalegintzen gara. Gure logotipoa, adibidez, Donostian sortu zen Ikuspe enpresak egin zigun.

- Hainbeste erreztasun izatea espero zenuten?

Egia esanda, ez, inondik inora. Uni Eibar-Ermuako irakasle guztiek pilo bat lagundu digute, zuzendariak, Antxon Narbaizak baita ere, aloikaruan erreztasunak eman dizkigute... eta nola-bait eskertzeko, gure enpresaren kamiseta bana eman diegu. Kamiseta horiek, dirulaguntzatik irten dira baita ere, eta klasean erabiltzen ditugu eta ikasleei

“Dirulaguntzekin web orria, logotipoa, kamisetak eta ikastaroak antolatu ditugu”

ILEAPAINDEGIA
Traskun
 Goenkale, 9 (Plaza San Martin)
 48260 Ermua Bizkaia
 Tel. 943.17.66.90
ILEAPAINDEGIA

komunitateak aseguruak
San Pelayo
 aholkularitza fiskal eta juridikoa
 Tel. /Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
 San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

PUB YOMY

Zubiaurre kalearen bihotzean

ematen dizkiegu, publizitatea egiteko.

- Gazteak izateagatik arazorik izan duzue?

Zuzenean inork ez digu ezer esan, baina batzutan igertzen duzu. Bi kanpinen igerilekua kudeatzeko aurrekontuak prestatu genituen, oso aurrekontu lehiakorrek ziren, eta ezetz esan ziguten. Gure ustez, batzutan gazteegi ikusten gaituzte.

- Nahiz eta gazteak izan, ausartak izan zarete...

Bueno, hain gaztea izanda horrelako zeozer egitea ez da hain zaila. Nagusiagoa zarenean, etxebizitza ordaintzen zaudenean, lana laga eta proiektu berri batean sartzen direnak, horrek bai ausartak direla.

- Zer ikastaro antolatu dituzue orain arte?

Momentuz, bi ikastaro antolatu ditugu, biak patinaje-arenak. Azkenean, jendeak patinekin lotzen gaitu, leku pilo batetan agertu garelako horrekin..., baina horri esker ere, lagun talde batek ikastaro pribatua emateko kontratatu gintuen eta Soraluzeko ikastetxe batek ekainean nahi du ikastaroa antolatzeari.

- Nahiz eta kirolariak izan (biak sorosleak dira eta

Jon txirrindulari federatuta izan zen) zuek ezin izango duzue ikastaro denak eman, ezta?

Guri klaseak ematea asko gustatzen zaigu, ofizina batean agiriak egiten egotea baino askoz ere gehiago, baina ezinezkoa da kirol denak menperatzea. Hala eta guztiz ere, kirol mundua ondo ezagutzen dugu eta gonorazko jende pilo bat ezagutzen dugu. Oso garrantzitsua da eskaintzen duguna, behintzat, bete ahal izatea, bestela lanak gal ditzakezu. Eta gainera, herri txikietan ahoz ahoko informazioek kalte handia egin dezakete.

- Kolaboratzaile sare handia duzue, orduan?

Bai, baina laguntza gehia-

“Ez ditugu kirol denak menperatzen, baina gonorazko jendea ezagutzen dugu”

go izatea ondo dator, beraz, guretzat lan egin nahi dutenek, euren kurrikuluma bidualtzeko aukera dute.

- Zer proiektu daukazue?

Orain, udarako udalekuak prestatzen ari gara. Ezagutzera eman behar dugu gure izena eta udalekuena ideia ona iruditu zitzaigun, udan ume asko geratzen direlako udalekuetara joan gabe lekurik ez dagoelako. Guk aurreproiektua egiten ari gara eta prest dugunean deialdia


egingo dugu. Saiatu behar gara ez daukagulako ezer galtzeko. Agian, folletoak kostatzen dutena, 200 euro inguru.

- Bulegorik daukazue?

Bai, Unibertsitateko bulego batean gaude. Bertan telefonoa eta Internet dauka eta bezeroren bat badator han bil gaitzeko.

Eurekin harremanetan jaritzeko kirolzale@kirolzale.net

Dorieta Vidal



K A R A B A N A
S A L G A I
 Adria karabana salgai, abanzearekin
 Oso ondo zainduta (barruan gordeta)
659 62 13 08

ALOKAIRUA
 Abeletxen garajea alokatzen da
677 29 95 95

DROGETENITURRI
EUSKAL BIRUSA
 943 17 93 50
 Elexoste

Pub SCORPIO

 Zubiaurre, 21
ERMUA

OSASUNA ETA EDERTASUNA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA

FISIOTERAPIA
 943 17 28 09
 Goenkale 12 - behe

HORTZklinika
 neraz inguez
 San Ignazio, 4
ERMUA
 943 03 05 12